

2023ko Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren Mezua

Samiha Ayoub, aktore egiptoarra

Adiskideok, mundu zabalean antzerkiko artista zaretenok:

Antzerkiaren Nozioarteko Egunaren harira idazten dizuet mezu hau. Pozarren nago hargatik; alabaina, dar-dar batean ditud gorpuzteko zelula guztiak, munduaren egungo egoerak artista guztioi -antzerkian aritu nahiz beste ezein diziplinatan- pairarazten dizkigun presio gogorren eta sentimendu kontraesankorren mende. Ezegonkortasun egoera batean gaude, gure munduak bizi dituen gatazka, gerra eta hondamendi naturalen eragin zuzenez; horiek guztiek ondorio benetan latzak izan dituzte, ez bakarrik mundu materialean, baita pertsonon mundu espiritualean eta bake psikologikoan ere.

Sentsazio jakin baten mende ari natzaizue: mundua mila uharte isolatuen artxipelago bihurtu den sentsazioa, edo hodeiek hartutako itsaso ilunean ihesari emandoko barku-multzo bat, zein bere aldetik, alderrai, laino artean gidatuko dituen argi apurrik ikusi ezinik. Eta, hala eta guztiz ere, nabigatzen jarraitzen dugu, itsaso zakarrean denbora luzean hara-hono ibili ostean, babestuko gaituen portu seguru batera iristeko esperantzak akuilatuta.

Gure mundua ez da inoiz gaur egun bezain konektatuta egon, baina, aldi berean, ez da inoiz izan gaur bezain armonia eskaseko, ez gara inoiz elkarrengandik gaur baina urrunago egon. Horra hor mundu garaikideak inposatzen digun paradoxa dramatiko. Informazioaren eta komunikazio modernoek zirkulazioak muga geografikoen hesi guztiak hautsi dituzten honetan, munduak bizi dituen gatazka eta tentsioek pertzepzio logiko ororen mugak gainditu dituzte, eta, itxurazko konbergentzia horren erdian, funtsezko dibergentzia bat sortu dute, gizatasun oinarrikoenaren senetik aldentzen gaituena.

Berez, antzerkia giza ekintza bat da, eta oinarrian gizateriaren benetako esentzia du, zein bizitza bera baita. Hauxe zioen gure aitzindari handi Konstantin Stanislavskyk: «Ez zaitez inoiz antzokian sar oinetan lokatza duzula. Utz itzazu kanpoan hautsa eta zikinkeriak oro. Utz itzazu kanpoan eztabaida eta kezka txikiak oro, kanpoan jantziko dituzun arropak, bizitza hondatzen dizuten eta arreta zure artetik desbideratzen dizuten gauza horiek guztiak». Agertokira igotzen garenean, gutako bakoitzaren barruan dagoen bizitza bakarrarekin igotzen gara, gizaki bakar baten bizitzarekin. Baina bizitza horrek ugaltzeko gaitasun handia du, bizitza bakarretik bizitza ugari emateko, munduan zehar lau haizetara zabalduko ditugunak, han-hemen ernamundu eta loratu daitezten, eta beren lurrina beste pertsona batzuen artean barreia dezaten.

Antzerkigintzan egiten duguna (garela antzerkigile, zuzendari, aktore, eszenografo, poeta, musikari, koreografo edo teknikari... hots, guk guztiok, salbuespenik gabe, egiten duguna) bizitza sortzeko egintza da, gu agertokira igo aurretik existitzen ez zen bizitza sortzekoa. Bizitza sortu berri horrek esku maitekor bat eskatzen du, eutsiko dion esku maitekorra, baita beso artean hartuko duen bular amultsua, hartaz errukituko den bihotz onbera, eta bizirauteko beharrezko arazoiez hornituko duen buru orgi bat ere.

Nire aburuz -eta ez da batere gehiegikeria- agertokian egiten duguna bizitza-egintza da bete-betean, ezerezetik sortutako bizitza batena, gauaren hoztasuna berotuz ilunpetan diz-diz egiten duen txingar baten antzeko bizitza batena. Guk ematen diogu distira bizitzari. Guk gorpuzten dugu bizitza. Guk bihurtzen dugu bizitza kartsu, guk jantzen dugu esanahiaz. Eta guk ematen ditugu bizitza ulertzeko arazoiak. Gu gara -artearen argia lagun-, ezjakintasunaren eta estremismoaren iluntasunari aurre egiten diogunak. Bizitzaren doktrina besarkatzen dugu, hartara bizitza mundu zabalean ibili dadin, heda dadin. Asmo horrekin, gure ahalegina, denbora, izerdia, malkoak, odola eta kemena eskaintzen ditugu, beharrezko guztia, mezu noble hori zabaltzeko asmoz, betiere egiaren, ongiaren eta edertasunaren bolioak defendatuz, bizitzak bizitza merezi duela benetan sinetsita.

Zuengana jotzen dut gaur, baino ez haren nazioarteko egunean arte guztien aito denari buruz hitz egiteko, "antzerkiari" buruz, alegia, ezta egun hori ospatzeko asmoz ere. Aitzitik, elkarrekin altxatzera gonbidatu nahi zaituztet, soinez soin elkar hartuta, garrasi batean oihu egiteko -gure antzokietan egiten dugun bezala-, eta gure ezarrietatik kanpo hitzari bidea emateko, hartara mundu osoaren kontzientzia piztu dezan, gizakiaren esentzia galduaren bila: gizaki aske, tolerante, amultsu, ulerbera, abegikor eta jasanberaren esentzia galduoren bila, hain zuzen ere basakeria, arrazakeria, gatazka odoltsuak, pentsamendu unilaterala eta extremismoa arbuiatzeko gai den gizakiaren senaren bilo. Gizakia milaka urtez ibili da lurraren gainean eta zeruaren azpian, eta ibilian jarraituko du. Horrenbestez, atera itzazue oinak gerren eta gatazka odoltsuen lohi zikinetik, eta utzi itzazue kanpoan, agertokiko atearen bestaldean. Agian orduan, gure gizatasun kolokan jarria ziurtasun kategoriko bihurtuko da berriz ere, eta harro sentituko gara berriro gizaki izateaz, gizatasunean anaia-arreba izateaz.

Lehen antzezlea lehen agertokian lehen aldiz agertu zenetik aurrera argi-zuziaren eramaile garen heinean, munduan beldurgarri, odoltsu eta anker den ororen aurkako borrokaren lehen lerroan egoteko eginkizuna dagokigu antzerkigileoi. Eta ederra, garbia eta gizatiarra den ororekin aurre egitekoa. Guk, eta ez beste inork, bizitza zabaltzeko gaitasuna dugu. Zabal dezagun, bada, denok elkarrekin, mundu bakar baten eta gizadi bakar baten izenean.